

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2020KO IRAILA


Euskal AEko industria-jarduera % 9,8 jaitsi da 2020ko irailean

Aurreko hilaren aldean, 2020ko abuztua, Industria produkzioaren indizea % 2,5 igo da

Eustatek landutako datuen arabera, 2020ko irailean % 9,8 murriztu da Euskal AEko industria-produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneotan, 2019ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2020ko abuztuarekin iraila alderatuta, Euskal AEko industria-produkzioa % 2,5 hazi da.

2020ko lehenengo bederatzi hilabeteetako balantzea industria-jardueraren % 15,1eko uzkurdua metatuarekin itxi da.



2020ko iraileko indizearen bilakaera, 2019ko irailarekin alderatuta, negatiboa izan da industria-sektore handi guztietan. *Energiak* % 23,5 egin du behera. Sektorerik handiena azpimarragarrien artean energia elektrikoa hornitzea eta petrolioaren finkatzea daude.

Bitarteko ondasunak, bestalde, % 8,5 jaitsi dira, eta *Ekipo-ondasunak* % 7,2. Lehenengoen artean daude metalurgia eta metalen produktuen fabrikazioa, industria kimikoa edo kautxuko eta plastikozko produktuen fabrikazioa; bigarrenen artean, berriz, ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialaren egitea edo aireontziak edo itsasontziak egitea.

Azkenik, *Kontsumo-ondasunek*, oro har, urte arteko % 6,5eko jaitsiera izan dute; horien barruan, *Kontsumo-ondasun iraunkorrek*, % 17,7koa, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek*, % 3,3koa. *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* epigrafean altzariak eta etxeako tresnak fabrikatzeko jarduerak ageri dira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Hil arteko aldakuntzak (2020ko iraila 2020ko abuztuaren aldean) zeinu desberdineko aldakuntzak izan ditu industria-sektore handietan, urtaro-eraginak zuzendu ondoren. *Ekipo-ondasunek* % 11,5 egin dute gora, eta *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 1,3 egin dute gora produkzioan, zeren *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 3,5eko igoera izan baitute, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 0,8koa. Aitzitik, *Energia* % 6,8 jaitsi da, eta *Bitarteko ondasunak* % 0,1.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2020ko Iraila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Ira2020 / Ira2019	A(Ira2020) / A(Ira2019)(*)	Ira2020 / Abu2020	Abu2020 / Uzt2020
Indize orokorra				
Euskal AE	-9,8	-15,1	2,5	-1,5
Araba/Álava	-6,2	-15,8	4,0	-3,7
Bizkaia	-14,8	-16,4	3,3	-3,3
Gipuzkoa	-6,9	-13,2	0,9	1,8
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-6,5	-7,5	1,3	-2,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrek	-17,7	-17,4	3,5	-3,6
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek	-3,3	-5,1	0,8	-1,8
Ekipo-ondasunak	-7,2	-15,0	11,5	-11,6
Bitarteko ondasunak	-8,5	-18,6	-0,1	0,3
Energia	-23,5	-9,6	-6,8	1,4

(*) 2020ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2019eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila xehatuago batean, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, urte arteko aldakuntzetan 2020ko irailean portaera positiboa izan duen sektore bakarra *Kautxua eta plastikoa* izan da, produkzioan % 3,0ko hazkundearekin. Hauek dira, pisu handieneko sektoreetan, jaitsierarik handienak eduki dituztenak: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, % 20,3 behera egin duena, *Metalurgia eta produktu metalikoak*, % 14,7 jaitsi dena, eta *Makineria eta ekipoa*, % 7,0ko jaitsiera izan duena, behin zuzenduta egutegi-efektuak.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-14,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-20,3
09 - Kautxua eta plastikoak	3,0
13 - Makineria eta tresneria	-7,0
14 - Garraio-materiala	-2,2
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-0,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-0,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-6,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeetan, Industria produkzioaren indizearen iraileko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan. Halatan, Bizkaian % 14,8ko jaitsiera izan da (batez ere, energia-sektorearen portaeraren eraginez), Gipuzkoan % 6,9koa eta, azkenik, Araban % 6,2koa.

Hilabete arteko terminoetan, 2020ko iraila 2020ko abuztuaren aldean, eta urtaro-ondorioak kenduta, Araban produkzioa % 4,0 hazi da, Bizkaian % 3,3 eta Gipuzkoan % 0,9.

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren eraginak zuzentzean eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis metodologia-oharrean emandako gomendioei jarraikiz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik gauden zirkunstantzietan. Horiei esker, iraileko indizea laginaren % **92,49ko** estaldurarekin kalkulatu da, eta horren informazioa urrian jaso da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62